



Eskola Kirola – 2017-2018 lehiaketako araudia

ABIADURAZKO IRRISTAKETA

LEHENBIZIKO TITULUA

Lehenbiziko kapitulua: Xedapen orokorrak

Lehenbiziko atala: Egutegia eta inskripzioak

1. Artikulua

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren ardura izango da urte bakoitzeko egutegi ofiziala ezartzea eta erakunde guztiei horren berri ematea.

Horretarako, A. I. F.-k izapidetuko ditu euren esparruetan eskola kiroleko probak egin nahi dituzten erakundeek aurkeztutako eskaerak, eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari horien berri emango dio. Aipatutako eskaerak A.I.F.-ren eskuetan egon beharko dira urte bakoitzaren urtarrilaren 1a baino lehen.

2. Artikulua

Eskolako egutegian proba bat onartua izan dadin, lehiaketaren nondik norakoak ahalik eta zehatzen eman beharko dira: ospatuko den tokia eta data, pistaren edo ibilbidearen luzera, zoruaren materiala, eta azken horren planoak, bere kota eta neurriekin.

3. Artikulua

Eskolako egutegian agertuko diren proba guztiak ofizialak izango dira, eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean izena eman duten ikasle guztiek parte ahal izango dute bertan.

4. Artikulua

Ikasleen inskripzioak Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean aurkeztuko dira, urte bakoitzaren urtarrilaren 1a baino lehen, eta argi eta garbi zehaztu beharko da ABIADURAKO IRRISTAKETAN parte hartu nahi dela.



Bigarren atala: Kategoriak

KATEGORIAK	JAIOTZE URTEA	LUR.EREMUA
AURREBENJAMINAK	2008-2009	IKASTETXEA
BENJAMINAK	2006-2007	TOKIKOA EDO/ETA ESKUALDEKOA
KIMUAK	2004-2005	ARABAKO L.H.
HAURRAK	2002-2003	ARABAKO L.H.
KADETEAK	2000-2001	ARABAKO L.H.
EMAKUMEZKOAK ETA GIZONEZKOAK		

II. KAPITULUA Eskolarteko txapelketak

Lehenbiziko atala: Ospatzeko modua

1. Artikulua

Proben sailkapenak indibidualak izango dira.

Irristalariak proba bakoitzean lortu dituzten puntuak partaideen kopuruaren arabera egongo dira. Kopuru hori izango da, hain zuzen, lehen sailkatzen denari emango zaizkion puntuak; bigarrenari, aldiz, puntu bat gutxiago emango zaio, hirugarrenari, bi puntu gutxiago, eta horrela hurrenez hurren azkena sailkatu dena iritsi arte; puntu bat lortuko du horrek.

Puntuen baturak sailkapen orokorra emango du, puntu gehien dituenetik gutxien dituenera. Berdinketa bat gertatzen bada, garaile irtengo da proba luzeenean sailkapen hobea lortu duena.

2. Artikulua

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak onartu dituen irristalariak parte hartu ahal izango dute Eskolarteko txapelketetan, betiere horiek guztiak Araudi honetan proba bakoitzerako ezarri diren adinen mugaren barruan badaude.

Aurkeztutako inskripzioen kopurua Epaille arbitroak, pista edo/eta zirkuitu bakoitzaren neurrien arabera, probarako ezarri duen partaideen kopurua baino handiagoa bada, sailkapen fasea egingo da aurretik, kategoria bakoitzeko finalera pasako diren partaideak zehaztu daitezzen.

Epaille arbitroak erabakiko ditu proba bakoitzean ezarriko diren Oinarriak, baita txapelketa behar bezala gauzatu dadin beharrezkoak diren baldintzak ere.

3. Artikulua



Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak egindako partaideen inskripzio orriak proba bakoitza hasi aurretik ospatuko den prestakuntzako bileran aurkeztu beharko dira derrigorrez.

Bigarren atala: Lasterkariak.

1. Artikulua

Lasterkari guztiak irteerako marran agertuko dira ekipamendu osoa baldintza egokietan eta irristatzeko materiala egoera onean dutela. Babesteko kaskoa erabiltzea beharrezkoa da.

2. Artikulua

Erakunde bakoitzaren ardura izango da bere irristalari guztiei erakundeak berak erabakitako kolorez osatutako jantzia ematea.

Beren kabuz aurkezten diren ikasleek galtza beltzak eta atorra zuria eraman behar dute derrigorrez. Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak erakunde orori debekatu dio kolore horiek erabiltzea.

3. Artikulua

Irristalariak bere erakundearen jantzia eraman behar du derrigorrez. Hotza egiten badu, praken kolore berekoak diren elastikoak eraman ahal izango ditu horien azpian.

Saria jasotzeko eskubidea duten irristalariak sarien banaketan aurkeztu behar dira derrigorrez, eta euren uniforme arautuarekin jantzita joango dira. Irristalariak artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, ez da podiumean igoko bere sariak eskuratzeko.

4. Artikulua

Irristailuak bi mota ezberdinetakoak izan daitezke: bi zutabe paralelo eta bakoitzean gurpil pare bat dituztenak, edo gehienez ere bost gurpileko ilara batez osatuta daudenak. Irristailuak ez du 50 cm baino gehiagoko luzera izango. Gurpilen diametro maximoa ez da 100 mm baino handiagoa izango. Irristailuak eta zapatak sendoki loturik egon behar dira, eta ardatzak ez dira gurpiletatik atera behar. Balazta erabili daiteke.

Irteerako epailea arau horiek bete direla bermatzeaz arduratuko da, eta irteera eman baino lehen, edozein akatsen berri emango dio Epaile arbitroari.

5. Artikulua

Partaide orok oinarrizko gizatasun arauak bete behar ditu ezinbestean, erabateko leialtasunez eta ahalegin guztiak eginez, eta kiroltasunaren zintzotasuna guztiz errespetatu beharko du.

III. KAPITULUA: Abiadurako irristaketaren modalitateak

Lehenbiziko atala: Tokiaren arabeko sailkapena-

1. Artikulua

Tokiak lasterketa motak baldintzatu egiten ditu: pistako lasterketa, indoor pista eta ibilbide itxia.

Bigarren atala: Pista -



1. Artikulua

a) Aire zabaleko edo estalita dagoen instalazioari Pista deitzen zaio. Erabat berdinak diren bi zuzenez osaturik dago eta zuzen horiek lotzen dituzten diametro bereko bi bihurgune simetriko ditu; haien arteko lerroa erabat horizontala da.

b) Pistaren ibilbide osoak ez ditu 125 metro baino gutxiago edukiko, ezta 400 metro baino gehiago ere. Gutxienez, 5 metroko zabalera izango du, eta bihurguneek 6 metroko erradio minimoa izan beharko dute.

c) Pistaren zorua edozein materialetakoa izan daiteke, baldin eta gurpilen gaineko irristaketa egiteko nahikoa laua bada. Dena den, zorua ezin da irristakorra izan, lasterkarien egonkortasuna arriskuan jartzen baitu horrek.

d) Pistak lauak izan daitezke, edo peraltea duten bihurguneak izan ditzakete. Azken horiek kanpoko hesi batez inguratutik egongo dira.

e) Peraltea duten bihurguneek osatutako Pisten ibilbideek ez dute 125 metro baino gutxiago izango, ezta 250 metro baino gehiago ere. Gorapena pixkanaka eta uniformeki igoko da, barrualdeko ertzetik hasi eta kanpoalderako norabidean. Zuzenek gorapena duten ibilbideak izan ditzakete bihurguneen gorapenean sartu aurretik. Hala ere, zuzenen luzera erabat laua izan behar da, eta haien luzera osoa ez da ibilaldi osoaren %33 baino gutxiago izango.

f) Ibilbidearen neurriak 30 cm-ko distantziara ezarriko dira, barrualdeko mugetatik hasita. Marra irudikari horri "soka" deritzogu. Debekaturik dago pistaren ertzetatik hurbil zutabeak edo mugitu ezin daitekeen edozein pieza eraikitzea. Azken horiek altxatzea edo eremu horretatik ateratzea ezinezkoa balitz, babesteko materialaz estalita egon behar dira. Aparra, mantak, etab. bezalako materialak erabili daitezke horretarako.

g) Pistak markatzen dituzten kanpoaldeko hesiak egokiak diren materialekin babestuko dira haien arriskua murriztu dadin.

h) Pista bateko barrualdeko ertza zintarri naturalaz edo hesi batez zedarriztatutik ez badago, euskarriekin mugatuko da, bata bestearengandik 10 metroko distantziara jarritz. Euskarriak konikoak badira hobeto, eta arinak izan behar dira; gainera, 0,20 metroko altuera izango dute gehienez, eta sokaren barrualdetik 0,30 metrora jarriko dira.

i) Irteera eta helmugako marrek 5 cm-ko zabalera izango dute, eta zuriz edo pistaren kolorekoa ez den beste batez margotuta egongo dira. Erlojupeko karreren irteerak 5 cm-ko zabalera bi marra paraleloz markatuta egongo dira, beraien arteko distantzia 60 cm-koa izanik. Irteerako marra ez da sekula bihurgune batean jarriko, beste aukerarik ez dagoenean izan ezik. Horrela jartzeko aukerarik egongo balitz, Epaille arbitroak irteerako marra aurreratze edo atzeratze eskubidea dauka, nahiz eta, horren ondorioz, probaren distantzia zehatza aldatu daitekeen.

j) Helmugako marra Pistan markatuko da, azken bihurgunearen irteeratik ahalik eta urrunen kokaturik. Marra zuzena ahalik eta luzeena izatea ahalbidetuko du horrek.

k) Lasterketaren noranzkoa honakoa izango da: lasterkarien ezkerreko eskuak Pistaren barrualdeko ertzari begira egongo dira, hau da, ibilaldia erlojuaren orratzen aurkako noranzkoan egingo da.

Bigarren atala: Indoor pista -



1. Artikulua

a) Lasterketako ibilaldia instalazio itxi batean kokaturik dago. Luzera bereko 2 zuzenez eta berdinak diren bihurgune pare batez osaturik dago.

b) Ibilaldiak ez ditu 80 metro baino gutxiago izango, ezta 100 metro baino gehiago ere. Lau (4) metroko zabalera izango du, gutxienez.

c) Pistaren zorua erabat laua eta irristatzeko egokia den edozein materialetakoa izan daiteke.

d) Bai bihurgunearen sarrera, bai irteera euskarriekin (konoak) markaturik egongo da ondoko hurrenkerari jarraiki:

- 1. euskarria: helmugako marraren aurretik kokaturik dagoen lehenbizikoa da.
- 2, 3 eta 4 euskarriak: erlojuaren orratzen aurkako noranzkoan doaz hurrenez hurren.
- 1 eta 3 euskarriak bihurguneen hasieran kokaturik daude.
- 2 eta 4 euskarriak zuzenen hasieran kokaturik daude.
- Euskarrien altuera maximoa 20 zentimetrokoa izango da.
- Euskarri bakoitza bere kanpoaldeko ertzetik 5 cm-ra egongo den marra batez inguratutik egongo da. Gainera, euskarriari dagokion tokia gurutze batez markaturik egongo da (marrazturik edo zinta itsaskorraren bidez); horrela, euskarriak behar ez den tokian badaude, markatutako lekuak bere horretan jarraituko du, behintzat.
- Lehiaketaren eremua euskarriek eratzen duten marraren eta pista mugatzen duen kanpoaldeko inguruaren artean kokatuta dago.
- Pelotoian egindako lasterketen kasuan, irteerako marra zuzenaren hasieran kokaturik dago.
- Pista zedarriztatzen duen kanpoaldeko ingurua arriskua ezabatzeko materialaz babestu beharra dago, batez ere bihurguneetan eta azken hauen irteerako eremuetan.
- Lasterketa hasi ondoren, Epaille arbitroari dagokio ibilaldia hobetzearen inguruko edozein erabaki hartzeko eskubidea.

2. Artikulua

1.000 metroko edo hori baino gutxiago dituzten ibilbideak distantzia laburrekoak direla esaten da. Distantzia luzeko ibilbideek, aldiz, 1.000 metrotik gora izan behar dute.

3. Artikulua

Irristalariak zentzuzko ibilbidea izan eta norabide zuzenean joan behar du. Lasterkari batek proba laburretan bereziki oztopoak sortarazi baditu, zigorra jasoko du, probatik zuzenean kanporatuz.

4. Artikulua



a) Irristalari batek proba laburretan irteera faltsua egin badu, irteerako marraren atzetik metro bateko distantziara kokatzeko zigorra jasoko du, baina bere lerroan jarraituko du. Beste irteera faltsu bat egiten badu, kanporatua izango da.

b) Lasterketa batean irristalari bat edo irristalari multzo bat irteerako marra eta lehenbiziko bihurgunearen sarreraren artean (1. euskarriarekin markaturik dagoena) erori bada, Epaille arbitroak lasterketa eten eta hasiera emango dio berriz, azkeneko aldiz.

c) Irristalari bat edo bat baino gehiago arau hauste baten ondorioz erori badira, horren guztiaren erantzulea kanporatua izango da.

5. Artikulua

a) Irristalari batek edo batek baino gehiagok euskarria nahi gabe jo badute ez du zigorrik jasoko, betiere dagokion tokitik mugitu ez badute, hau da, euskarria bera inguratzen duen zirkulutik atera ez badute.

b) Irristalari batek euskarri bat mugitu badu, baina erruduna beste bat izan bada, lehenbizikoak ez du zigorrik jasoko. Aitzitik, epailleek erabakiko dute arau hauslea zigortzeko modua, amonestazioa ipiniz edo kanporatuz.

c) Irristalari batek euskarria hanka artean pasatu edo euskarri barrualdea igaro badu, kanporatua izango da.

d) Irristalari batek amonestazio bat jasoko du euskarri bat (1) jo eta euskarria bere posiziotik aldentzen badu, hau da, euskarria inguratzen duen zirkulutik ateratzen badu. Bigarren aldiz gauza bera egiten badu, kanporatua izango da.

e) Euskarria bere tokian ez badago, irristalariak konoa egongo litzatekeen tokia errespetatu behar dute, izan ere, dagokion tokia markaturik egongo da, 1. artikuluan adierazi bezala.

f) Epaille arbitroak edo bertaratuek irristalari bati pistatik ateratzeko eskatzen badiote, eta azken horrek jaramonik egiten ez badie, kanporatua izango da.

g) Berehala emango da zigorren berri megafoniatik. Epaille arbitroak epaille bat izendatuko du hortaz arduratu dadin.

Hirugarren atala: Ibilbide itxia -

1. Artikulua

a) Ibilbide itxia ibilbide asimétriko itxi bat da, probaren distantziaren arabera, lasterkariak behin edo behin baino gehiagotan egin behar dutena.

b) Ibilaldi itxiak ez ditu 250 metro baino gutxiago izango, ezta 1.000 metro baino gehiago ere. Gutxienez, 5 metroko zabalera izango du, eta bihurguneen erradio minimoa 4 metrokoa izango da. Helmugako marra helmugara heldu baino lehen dagoen bihurgunetik 50 metroko distantziara kokaturik egongo da, gutxienez.

c) Ibilbide osoa maila berean egon behar da, baina %5eko malda maximoko igoera zein jaitsiera izan dezake, baldin eta ibilbide osoaren %25 baino gehiago hartzen ez badu.

Laugarren atala: Abiadurako irristaketa, distantzia eta lehiaketa motaren arabeko sailkapena



1. Artikulua

Bai Pistan, bai Zirkuituan, ondokoak dira distantzia ofizialak: 200 – 300 – 500 – 1.000 – 1.500 – 2.000 – 3.000 – 5.000.

2. Artikulua

Abiadurako lasterketak modu ezberdinetan egin daitezke:

- a) Erlojupekoak.
- b) Kanporaketako serieak.

3. Artikulua

Erlojupeko abiadura lasterketen kasuan kronometraje elektronikorik ez badago, hiru kronometro erabiliko dira. Lasterkari bakoitzak egindako segundo ehunenak markatuko dituzte. Kronometro horietatik bik markatuko duten denbora izango da lasterkariei esleitu zaien.

Hiru kronometroek emaitza ezberdinak eman badituzte, hiruren arteko batez besteko denbora izango da ontzat emango dena, Dena den, kronometro batek gainontzekoei 50 ehuneneko aldea ateratzen badie gutxi gorabehera, emaitza hori ez da kontuan hartuko, eta batez bestekoa beste bien artean kalkulatu da. Denbora soilik bi kronometroen bidez erregistratu bada, kontuan hartuko da denborarik txarrena jaso duena.

Lasterkari bakoitzak egindako denbora helmugara heldu bezain laster eta hurrengo lasterkaria iritsi aurretik eman behar da.

4. Artikulua

Serieetan egiten diren abiadurako lasterketetan erakunde bereko irristalariak norgehiagokan ez aritzea eta bigarren aldez aurretik kanporaketako norgehiagokan aritu diren lasterkarien aurka berriz ere ez lehiatzea saiatu beharra dago.

Serieetan parte hartuko duten irristalarien kopurua zirkuituaren edo pistaren zabalaren arabera egongo da.

Serieen eraketa irristalarietako aurretik egindako erlojupeko proban lortutako sailkapenaren arabera egingo da. Horrela, irristalariak sugearen sistema erabiliz kokatuko dira, eta arestian aipatutakoan oinarrituko dira horretarako. Aurretik erlojupeko probarik izan ez bada, serieak zozketa eginez eratuko dira, serieko buruak zehaztuz. Zozketa horri esker, irristalari bakoitzak irteerako marran nahi duen tokia aukeratzeko eskubidea izango du.

Puntuen baturak sailkapen orokorra emango du, handienetik txikienera. Berdinketa bat gertatzen bada, garaile irtengo da proba luzeenean sailkapen hobea lortu duena.

Bosgarren atala –Sailkapena proba motaren arabera

1. Artikulua

Lasterketak izan aurreko prestakuntzako bileran sokaren zozketa egingo da irteeraren hurrenkera zein den erabakitzeko, hurrenkera prozesua pistaren edo zirkuituaren barrualdetik hasiko da proba mota guztietan, abiadurakoetan izan ezik.

Lasterketa guztietan, irristalaria bere patinaren/botaren zatirik aurreratuenak helmugako marra zapaldu bezain laster sailkatuko da, eta patinaren edo botaren zati batek zorua ukitu behar du, gutxienez. Lehenbiziko patinak zorua ukitu ez badu, bigarren patinaren muturrak helmuga markatuko du.



Jarraian agertzen dira lasterketa motaren arabera dauden karrerak:

- a) Erlojupeko karrerak
- b) 500 m-ko esprint
- c) 1.000 m-ko Esprint
- d) 1.500 m-ko esprint
- e) Taldekako erlojupeko 1.500 m
- f) Taldekako jazarpena
- g) Lineako probak
- h) Puntuazioko probak
- i) Kanporaketako probak
- j) Puntuazioko probak + kanporaketako probak
- k) Erreleboko lasterketak

Hona hemen bakoitzaren ezaugarriak:

a) Erlojupeko karrerak:

Banakakoak dira, eta lasterkarien hurrenkera lasterketan izena eman duten irristalari guztien artean egindako zozketa bidez zehaztuko da.

Irteera faltsua izango da ondoko kasuetan:

- Bi lerroen artean dagoen patinak edo patinek atzeko edo aurreko lerroa zapaltzen du(t)enean.
- Benetako irteera eman aurretik irteerako fotozelula moztu denean.

Irristalari batek hiru irteera faltsu egiten baditu, probatik kanpo geldituko da.

Erlojupeko probetako irteeran, ondoko elementuak aintzat hartuko dira:

- Bi patinek edo haien zati batek zorua ukitu beharko dute, eta ez dira mugimenduan egongo.
- Irristalariak zabu egin dezake.
- Irristalariak patin bat izan beharko du, gutxienez, irteerako bi lerroen artean (euren arteko distantzia 60 cm-koa da).
- Patinarekin egindako lehenbiziko mugimendua lasterketaren norabidean egingo da.
- Epailak lasterkariari irteteko baimena emango dio, eta lasterkaria hamar segundoren buruan irteten ez bada, epailak irteera faltsutzat hartuko du hori.



Erlojupeko lasterketetan bi irristalarik denbora bera egin badute, proba errepikatuko da garailea erabakitzeke eta, beraz, sailkapenaren ordena zehazteko. Desberdintzeko proba hau egingo da soilik lehenbizi sailkatu diren hiru postuetan denbora berdintasuna izan bada; gainontzeko egoeretan, berdindu egin duten irristalariak *ex-aequo*-tzat hartuko dira aktan.

Banakako lasterketetan irristalari bakoitzak lortutako denbora helmugara heldu bezain pronto ezagutarazi behar da.

500 metroko eta 1.000 metroko esprint probetarako ohar komunak.

Serieak erlojupeko proban izandako emaitzen arabera egingo dira, sugearen sistemari jarraiki, eta horien ondoren, aipatutako proban parte hartu ez duen irristalariak (baldin badaude) sartuko dira. Erlojupekoa egin ez bada, zozketa egingo da serieko buruak aukeratzeko. Zozketa horren emaitzari esker, irristalari bakoitzak irteerako marran nahi posizioa hautatzeko eskubidea dauka.

b) 500 m-ko esprint

Aurretik aipatutako 500 m-ko eta 1.000 m-ko esprint probetako xedapen komunak kontuan hartuko dira.

Serie bakoitzean parte hartuko duten irristalarien kopurua pistaren edo zirkuituaren zabalerak dituen metroen berdina izango da.

Serie bakoitzeko sailkapenean lehenbiziko bi postuak lortu dituzten irristalariak hurrengo faseetara pasako dira, gutxienez.

Sugearen sistema erabiliko da finalurrekoak antolatzeko. Horrela, irristalariak aurretik egindako serie bakoitzean lortutako postuaren arabera kokatuko dira (lehenbiziko seriean garaile irten denak aurreneko finalurrekoan hartuko du parte, bigarrenaren irabazleak bigarren finalurrekoan hartuko du parte, eta horrela, hurrenez hurren). Prozesu honen bitartez, irristalariak irteerako marran eduki nahi duen posizioa hautatzeko eskubidea izango du.

Hurrengo fasean sailkatzea lortu ez duten irristalariak aipatutako fase horretan azkena sailkatu denaren ondoren agertuko dira aktan, eta sailkapena bakoitzak serieetan lortu duen denboraren arabera egingo da. Lortutako denborak eskura ez badaude, finalera pasa ez diren eta posizio berean dauden irristalariak *ex-aequo*-tzat hartuko dira sailkapenean, eta hurrengo fasearen azken sailkatuaren atzean sailkatuko dira.

c) 1.000 m-ko esprint

Kontuan hartuko dira aurretik aipatutako 500 m-ko eta 1.000 m-ko esprint probetako xedapen komunak.

Serie bakoitzean parte hartuko duten irristalarien kopurua pistaren edo zirkuituaren zabalerak dituen metroen berdina izango da.

Serie bakoitzean garaile irten den irristalaria hurrengo faseak egiteko sailkatuko da. Horrez gain, aurreko fasearen partaideen %50a gutxi gorabehera igaroko da, eta serieetan lortutako emaitzen arabera sailkatuko dira.

Sugearen sistema erabiliko da hurrengo faseko serie bakoitzaren garaileak antolatzeko. Kanporaketako serieetan lortu dituzten denboraren arabera egingo da antolaketa, eta haien atzean, aipatutako irizpide bera aplikatuz, bigarren aukeran hartu diren irristalariak kokatuko dira.

Seriea bukatutakoan kronometrajeak akatsen bat identifikatu bada, irristalari guztiek aipatutako seriea errepikatu beharko dute, garaileek izan ezik, egindako denborak argitu daitezzen.



Akatsaren ondorioz eskuzko kronometrajea egin behar bada, serie guztiak errepikatuko dira, baina serie bakoitzeko garaileek ez dute parte hartuko. Izan ere, gainontzeko partaideen denborak eskuzko kronometrajearen bidez argitzeko egingo da errepikapena.

Hurrengo fasean sailkatzea lortu ez duten irristalariak aipatutako fase horretan azkena sailkatu denaren ondoren agertuko dira aktan, eta bakoitzak sailkapen serieetan lortu duen denboraren arabera sailkatuko dira.

Zigorra sailkapenetik kentzea izango balitz, sailkapenetik at gelditu den irristalariak lortutako denbora kaltetuarena gehi milaren bat izango da.

d) 1.500 m-ko esprint

Serie bakoitzean parte hartuko dutenen irristalarien kopurua pistaren edo zirkuituaren zabalerak dituen metroak gehi zabaleraren erdiaren berdina izango da gutxi gorabehera.

Erlojupeko proba izan bada, serieak proba horretan lortutako sailkapenaren arabera egingo dira, eta sugearen sistema erabiliko da. Aitzitik, erlojupekorik izan ez bada, zozketa bidez antolatuko dira, serieko buruak zehaztuz.

Serie bakoitzean lehenbiziko bi postuak lortu dituztenak sailkatuko dira hurrengo faseetan. Horrez gain, aurreko fasearen partaideen %50a igaroko da ere bai, eta azken horien sailkapena lortutako denboran oinarrituko da.

Hurrengo fasean sailkatzea lortu ez duten irristalariak aipatutako fase horretan azken postua lortu duenaren ondoren agertuko dira aktan, bakoitzak sailkapen serieetan lortu duen denboran oinarrituko da sailkapena. Serieetan lortutako denborak gorde ez badira, finalera pasa ez diren eta posizio berean dauden irristalariak *ex-aequo*-tzat hartuko dira sailkapenean, eta hurrengo fasearen azken sailkatuaren atzean agertuko dira.

Zigorra sailkapenetik kentzea izango balitz, sailkapenetik at gelditu den irristalariak lortutako denbora kaltetuarena gehi milaren bat izango da.

e) Taldeakako erlojupeko 1.500 m

Talde bakoitzean bi irristalari egongo dira, gutxienez, eta hiru, gehienez. Bigarren postuan heldu den irristalariaren lehenbiziko patinak taldeak egindako marka zehaztuko du.

Irteerako ordena zozketa bidez erabakiko da eta proba horretan parte hartuko dutenen artean egingo da.

f) Taldeakako jazarpena:

Proba hau Pistan egin daiteke soilik.

Distantzia maximoa 1.500 metrokoa izango da.

Talde bakoitzean bi irristalari egongo dira, gutxienez, eta hiru, gehienez. Bigarren postuan heldu den irristalariaren lehenbiziko patinak taldeak egindako marka zehaztuko du.

Lasterketa serieetan egingo da, bi puntu distantziakideetan kokatuta dauden bi taldeen artean. Serieak zozketa bidez erabakiko dira. Parte hartuko duten taldeen kopurua zenbaki bakoitia bada, talde bat kronometroaren aurka norgehiagokan arituko da. Zozketa bidez hautatuko da proba horrela egitea dagokion taldea izendatzea.



Sailkapena lortutako denboraren arabera egongo da eta marka hobereena lortu duten lau taldeak igaroko dira finalurrekora. Horrela, lehenbizi sailkatu den taldea laugarrenaren aurka arituko da norgehiagokan, eta bigarrena, hirugarrenaren kontra. Garaile irten direnek finala jokatuko dute; hirugarren eta laugarren postuan gelditu direnak, aldiz, finalurrekoan lortutako emaitzen arabera sailkatuko dira.

g) Lineako probak:

Pistan edo zirkuitu itxian egin daitezke.

Partaideen kopurua mugagabea da. Epaile arbitroak erabakiko ditu proba bakoitzeko kanporaketak, baita onartutako irristalarien kopurua ere.

Partaideen kopurua oso handia bada, sailkapen serieak egingo dira, finalera pasako diren irristalariak aurretik zehaztu daitezten. Irristalariak bidezko banaketaren bidez antolatuko dira serieetan. Ez da galtzaileen finalik jokatu. Sailkapen serieetan lortutako emaitzetan oinarrituz sailkatuko dira. Serieetan egindako denborak gorde ez badira, finalera pasa ez diren eta posizio berean dauden irristalariak *ex-aequo*-tzat hartuko dira sailkapenean, eta hurrengo fasearen azken sailkatuaren atzean agertuko dira.

h) Puntuak lortzeko probak:

Irristalariak ibilaldiaren puntu zehatz batetik pasatzean puntuazioa lortzean datza lasterketa mota hau. Puntuazio handiagoa lortuko da helmugako marra azkenekoz ukitzean. Helmugara heldutakoan puntu gehien lortu dituen irristalaria garailea izango da.

Epaile arbitroak proba hauetan parte har dezaketen kopuru maximoa erabakiko du. Partaideen kopurua oso handia bada, sailkapen serieak egingo dira, finalera pasako diren irristalariak aurretik zehaztu daitezten. Serieetan finalean emango diren puntuazio berak jasoko dira, eta finalaren ibilaldian egin beharreko distantzia berbera egingo da. Talde bereko irristalariak bidezko banaketaren bidez antolatuko dira serieetan.

Finala jokatzeko sailkatu ez diren irristalariak aipatutako probaren azken postua lortu duenaren atzetik bilduko dira Aktan, lehenbizi bakoitzak kanporaketan lortutako puntuen arabera egongo da, serie bakoitzean lortutako posizioaren arabera ondoren, eta azkenik, serieetan heldueraren hurrenkera errepikatu denean, posizio berbera duten irristalariak *ex-aequo*-tzat hartuko dira.

Lasterketa egin aurretik ospatuko den bileran, Epaile arbitroak erabakiko ditu zenbat biretan behin egingo diren esprintak.

- Berriemaileak esprint bakoitzean puntuak irabazi dituzten irristalarien zenbakien berri emango du era estraofizialean. Behar diren egiaztapenak egin eta Epaile arbitroaren onarpena lortu ondoren ofizialki iragarriko dira.
- Esprinta egin aurreko biran, taldeko buruak helmugatik pasatzean ezkila-hotsak entzungo ditu. Puntuazioa bira guztietan ematen bada, ezkila lehenbiziko puntuazioa gertatu aurreko biran eta azkenekoan joko da soilik.
- Edozein arrazoi dela medio, irristalari batek proba burutu ez badu, aurretik lortutako puntuak galduko ditu.
- Bi irristalari edo gehiagoren artean puntu berdinketa bat eman bada, helmugako zuzenkian posizio hobereana lortu duenak irabaziko du.
- Epaile arbitroak irristalari batek esprintean falta bat egin duela uste badu, helduerako ordena eta puntuen esleipena aldatu ahalko du. Epaile arbitroak, haren irizpideei jarraiki, hurrengo esprint batean aipatutako irristalari horrek antzeko falta bat egin duela uste badu, deskalifikazio zigorra ezarriko dio irristalariari.



i) Kanporaketako probak:

Proba mota hau ibilaldiko puntu edo puntu bat baino gehiagotan irristalari bat edo gehiago zuzenean kanporatzean datza. Irteera eman aurretik, Epaille arbitroak zehaztuko du kanporatzeko modua, eta epaimahaiari zein irristalariari horren berri emango die. Epaille arbitroaren ardura da kanporatu behar den irristalariaren individualizazioa behar bezala gertatu dela bermatzea. Azken kanporaketaren ostean, proba burutuko duten irristalariak geldituko dira: ez dira bost (5) baino gehiago izango, ezta hiru (3) baino gutxiago ere. Azkeneko kanporaketa azken 500 metroei ekin baino lehen egingo da. Kanporaketak aldizka egin behar dira, probak iraun bitartean baten eta bestearen artean distantzia bera utziz tartean.

Helmugako marra zeharkatuko duen azken patinaren azken zatiak zehaztuko du kanporaketa.

Epaille arbitroak proba hauetako partaideen kopuru maximoa erabakiko du. Partaideen kopurua oso handia bada, sailkapen serieak egingo dira, finalera pasako diren irristalariak aurretik zehaztu daitezten. Sailkapen serie hauetan finalean egingo diren kanporaketa berberak izateaz gain, egingo den distantzia berbera izango da ere bai. Irristalariak bidezkoa den modu batean banatuko dira serieetan.

Finalera igaro ez diren irristalariak aipatutako proba horretan azken postua lortu duenaren atzean agertuko dira Aktan, lortu duten ordenaren arabera, eta posizio berean dauden guztiak *ex-aequo*-tzat hartuz.

Serieak antolatzeko garaian, kontuan hartu behar da finalera pasa diren irristalariaren kopurua azken kanporaketa egin ostean bere horretan mantendu behar dela, eta azken kanporaketa hori seriearen amaierarekin bat etorri behar dela.

Kanporatzeko sistema irristalariaren kopuruaren arabera ezarriko da, bai serieetan, bai finalean. Horrez gain, pistaren edo zirkuituaren luzera aintzat hartuko da.

- Esprinta egin aurreko biran, taldeko buruak helmugatik pasatzean ezkila hotsak entzungo ditu. Puntuazioa bira guztietan ematen bada, ezkila lehenbiziko puntuazioa gertatu aurreko biran eta azkenekoan joko da soilik.
- Ahal bada, ez da kanporatzeko esprintik egingo lehenbiziko biran, bereziki pista txikietan. Kanporaketak aldizka egin behar dira, bata eta bestearen artean distantzia bera utziz probak iraun bitartean. Azkeneko kanporaketa azken 500 metro baino lehen gauzatu behar da.
- Serieetan edo finaletan irristalari batek proba utzi badu nekatuta dagoelako edo erori delako, edo beste batek itzulia kendu diolako, borondatez kanporatua izan dela iritziko da.
- Halaber, irristalariak falta bat egiten badu kanporatzeko esprintean, Epaille arbitroak hura kanporatzeko erabakia har dezake, eta helmugako marra zapaldu duen azken irristalariaren posizioan jar dezake.
- Proba aldi batez bertan behera uztea erabaki bada, eten den unean parte hartzen ari ziren irristalariak ekingo diote berriz lasterketari, kanporatuak barne. Aitzitik, probatik kanpo geldituko dira bere borondatez hori erabaki dutenak eta deskalifikazio zigorra jaso dutenak.

j) Puntuazioko probak + kanporaketako probak:

Epaille arbitroak erabakiko du proba hauetan parte har dezaketen kopuru maximoa. Partaideen kopurua oso handia bada, sailkapen serieak egingo dira, finalera pasako diren irristalariak aurretik zehaztu daitezten. Finalera igaro ahal izateko, irristalariak dagozkien sailkapen serieetan helmugara iristea beharrezkoa dute. Sailkapen serie horietan finalean emango diren puntuazio berberak emateaz gain,



egin beharreko distantzia ere berdina izango da. Irristalariak bidezkoa den modu batean banatuko dira serieetan.

Finalera igaro ez diren irristalariak aipatutako horretan azken postua lortu duenaren atzean agertuko dira Aktan, lortu duten ordenaren arabera, eta posizio bera duten guztiak *ex-aequo*-tzat hartuz.

Serieak antolatzeko garaian, kontuan hartu behar da finalera pasa diren irristalarien kopurua azken kanporaketa egin ostean bere horretan mantendu behar dela, eta azken kanporaketa hori seriearen amaierarekin bat etorriko da.

Kanporatzeko sistema irristalarien kopuruaren arabera ezarriko da, bai serieetan, bai finalean. Horrez gain, pistaren edo zirkuituaren luzera aintzat hartuko da.

Kanporaketa egin den bira berean, buruan dauden irristalarietako puntuak emango zaizkie. Helmugako marra azkenekoz zeharkatzean puntu gehiago emango dira.

Azken kanporaketaren ostean lasterketan geratuko diren irristalarien kopurua ez da HAMAR (10) baino gehiago izango, ezta BOST (5) baino gutxiago ere.

Kanporatuek lortutako puntu guztiak galduko dituzte, eta kanporaketako ordenaren arabera agertuko dira Aktan. Puntuak helmugara heldu diren irristalarien posizioak argitzeko erabiliko dira.

Proba honetan behar bezala arbitratu dadin, kontuan hartuko dira kanporaketa eta puntuazioko lasterketei buruz zehaztutako puntuak.

k) Erreleboko lasterketak:

Pistan edo zirkuituan egin daitezke.

Bi irristalariz edo gehiagoz osatutako taldeen arteko lasterketak dira. Aurretik ezarritako distantzia egin behar dute eta alde zuzenetik erabakitako eremu baten barruan txandakatu behar dira.

Erreleboko lasterketak iraun bitartean epaileak eta partaideak egongo dira soilik pista edo zirkuituaren barruan.

Probaren Epaile arbitroak erabakiko du sailkapen serieak egin ala ez, eta pista edo zirkuituaren tamainan oinarrituko da. Erabakia baiezkua bada, serie bakoitzetik finalera igaroko diren taldeen kopurua adieraziko du. Egokia bada, serieak zozketa bidez gauzatuko dira, finalean izango den distantzia eta itxura berean eginez. Finalera heldu ez diren taldeak lortutako denboraren arabera agertuko dira Aktan.

Probak behar bezala gertatu daitezzen, ondoko puntuak aintzat hartuko dira:

- Taldeek lau irristalari izendatu ditzakete proba egiteko, baina fase bakoitzean soilik hiruk hartuko dute parte.
- Talde bakoitzak erabaki dezake erreleboak zenbat biretan behin egitea. Dena den, taldekide guztiak gutxienez errelebo bat jaso beharko dute derrigorrez.
- Helmugako zuzenkian errelebo eremu bat ipiniko da, baita erreleboak egingo dituzten irristalariak bilduko dituen itxaron eremu bat ere.
- Erreleboa jasotzeko unean aski da laguna ukitzearekin edo erreleboa hartuko duenak lagunaren bultzada jasotzearekin.
- Epaile arbitroak adieraziko du erreleboa eman duten irristalarietako itzultzeko egin behar duten bidea. Itzulerak ez du probaren garapena oztopatu behar.



- Erreleboa jaso behar duen irristalari batek errelebo eremuan sartu eta bere lagunak bera ukitzea lortu ez badu, taldea kanporatua izango da.
- Erreleboa egindakoan, hura jaso duen irristalariak lasterketan jarraituko du, bere egoera edozein dela ere.
- Azken erreleboa azkeneko bira hasi aurretik egingo da.
- Erreleboa, eta, beraz, ukipena, horretarako ezarri den errelebo eremuan hasi eta amaitu behar da.
- Irristalari batek deskalifikazio falta bat egin badu, deskalifikazio zigorra ezarriko zaio talde osoari.
- Aldaketako epaileak badaude, Epaile arbitroak haiei esleitutako taldearen edo taldeen irristalarien zenbakiak jasoko dituzte, horrek/horiek egiten dituen/dituzten errelebo guztietan.

VI.KAPITULUA Arau teknikoak

Lehenbiziko atala -Arau orokorrak-

1. Artikulua

Irristalariak ilara batean edo gehiagotan jar daitezke irteerako marran. Ilara bat baino gehiagotan kokatzen badira, titulu edo kategorien arabera, zozketa bidez edo parte hartzen duten klub nahiz federazio bakoitzaren arabera antolatuta daitezke. Epaile arbitroak du erabakia. Irteera eman ahal izateko, irristalariak irteerako marraren atzean egon behar dute, bata bestearengandik 50 cm-ko distantzia mantenduz. Partaideak irteera emateko ilarak egitea proposatu badute, bata bestearengandik 50 cm-ko distantziara egongo dira ilara horiek.

Irteera unean irristalariaren bi patinak edo azken horien zati batek zorua ukitu behar du, eta ezin dira mugimenduan egon. Irristalariak bere gorputza kulunkatu dezake. Arau hau ez betetzen ez bada, irteera faltsutzat hartuko da.

2. Artikulua

Epaile arbitroaren agindua jaso ostean, irteerako epaileak proban izena eman duten partaide guztiak deitu eta irteerako marratik hurbil bilduko ditu, zerrenda pasatu eta zenbakiak, jantziak zein materiala aztertzeko. Bigarren deialdia egin eta gero oraindik ere bertaratu ez direnak partaideen zerrendatik ezabatuko dira (lehenbiziko eta bigarren deialdien artean minutu bateko tarte egongo da).

3. Artikulua

Pistola baten tiro hotsak edo txilibitu baten txistu hotsak emango du irteera. Epaileak "ADI" hitza ozen esango du abisua emateko, eta segundo bat geroago pistolarekin tiro egin edo txilibituari putz egingo dio. Proba batean, gutxienez, hiru (3) irristalari ez badaude, ez da inolaz ere irteerarik emango irteerako marran. Nolanahi ere, banaka egin daitezkeen probak salbuespenak izango dira.

4. Artikulua

Irteera faltsua dela adierazteko irteera eman duen tiro hotsaren jarraian tiro egingo da berriz ere. Hala ez balitz, txilibituko txistu hots etengabeek adieraziko dute hori.

5. Artikulua



Irteerako seinalea eman aurretik alde egin duenak AMONESTAZIOA jasoko du. Izan ere, proba errepikatu beharko da, irteera baliogabetzea eragin baitu, irteera faltsua, alegia.

Erlojupeko karreretan irteera faltsuak eragin duen irristalariak ere amonestazioa jasoko du.

Irristalari batek hiru (3) irteera faltsu egiten baditu, KANPORATUA izango da.

Amonestazioak pilotzearen ondorioz jaso daitekeen deskalifikazio motaren kasuan, irteera faltsuak egiteagatik jasotako amonestazioak eta beste arrazoiengatik jasotakoak aparte egongo dira.

6. Artikulua

Ondoko kasuetan irteera baliogabetu eta errepikatu daiteke, betiere Epaille arbitroak hala uste badu:

- a) Lehenbiziko 130 metroetan irristalari bat edo gehiago erori izanak beste lasterkari batzuk erortzea eragin duenean, edo irristalari bat beste batek eragindako arau hauste baten ondorioz erori denean. Azken kasu horretan, arau haustea eragin duen irristalariari zigorra ezarriko zaio. Urratzeak duen garrantziaren arabera, falta arina (amonestazioa) edo larria (deskalifikazioa) jaso dezake.
- b) Erlojupeko lasterketetan, bai pistan, bai zirkuituan, ibilbidearen edozein tokitan inor erori denean, betiere erorketa istripu mekaniko baten eraginez izan bada edo irristalariaren errua izan ez bada.

7. Artikulua

Falta edo istripu larri batek hala eskatuko balu, Epaille arbitroak lasterketa baliogabetu eta errepikatu dezake lasterketako edozein unetan, egokitzen eta beharrezkotzat dituen zigorrak ezarriz.

8. Artikulua

Baimendutako Epaille arbitroak eta txapelketako tituludun ofizialak probek iraun bitartean pistan edo zirkuituan geratzeko eskubidea duten bakarrak dira.

Epaille arbitroak egokia dela uste badu, lasterketan parte hartuko duten irristalariari pistan edo zirkuituan egotea utziko die, baina abiadurako probetan soilik. Irristalariak ezingo dute keinurik egin, ezta norgehiagokan ari den irristalari bati hitzik esan ere. Araua betetzen ez badute, amonestazioa jaso eta pistatik kanporatuko dituzte.

9. Artikulua

Guztiz debekaturik dago banakako lasterketetan akordioak edo azpijokoak egitea.

Talde bateko irristalariak beste batzuen aurka norgehiagoka aritzean, ezingo dute konplotik egin onik irteteko edo beste irristalari bati kalteak eragiteko.

Irristalari bat bere taldekide bat laguntzen atzematen bada, irristalariari kargu hartu eta lasterketatik kanpo geldituko da. Laguntza emateak partaide bat erortzea eragin badu, edo beste baten aldeko eraginak ekarri baditu, egoera horretatik probetxua atera duena ere lasterketatik edo sailkapenetik atzelditu daiteke.

10. Artikulua

Lasterketak iraun bitartean doblatuak izan diren irristalariak ezingo dute inolaz ere haien aurkariak oztopatu, ezta partaideak lagundu ere.

Itzulia kentzearen fenomenoaren tamaina txikiko pisten edo zirkuituen luzeraren ondorioz gertatzen da, aurretik erabaki den distantzia gauzatu ahal izateko zenbait bira eman behar diren pistetan edo zirkuituetan, hain zuzen. Aipatutako distantzia norabide zuzenean egingo balitz, sekula ez litzateke horrelakorik gertatuko. Hau da, zirkuituaren edo pistaren sokak dituen metroak bezainbesteko atzerapena



emango litzateke. Ondorioz, presentzia fisikoa dagoen arren, itzuli bera egiten ari ez diren irristalariak (doblatuak eta doblatzen dutenak) inor ez balego bezala jokatu behar dute. Beraz, ezin dute tropelik sortu, ezta gurpilari lotu ere.

11. Artikulua

Itzulia irabazteko zorian dagoen irristalari batek edo talde batek beste irristalari edo tropel batengana heltzen bada, azken horrek ez dio inolaz ere laguntza eskainiko lehenbiziko irristalariari edo taldeari, eta ez du haren bidea oztopatuko. Alboratu eta pasatzen utziko dio, gurpilari lotu gabe. Galdutako bira lortzen saia daiteke berriz, aurreko artikuluaen ideia ahalik eta modu gehien errespetatuz. Halere, bira berean ari ez diren irristalariengandik hiru (3) metroko distantzia gorde beharko du.

12. Artikulua

Epaile arbitroak atzean geratu diren irristalariak pistatik edo zirkuitutik ateratzeko eskubidea dauka, proben erritmoa oztopatu ez dadin edo azken esprintean arazoak izan ez daitezen. Irriatalari batek sailkatzea lortuko du baldin eta doblatua izan den bira hori osatzea lortzen badu.

13. Artikulua

Irristalari bat lasterketan bakarrik egon arren, sailkapenean sartzeko ibilaldia amaitu eta helmugako marra aurrez aurre irristatzen zeharkatu behar du derrigorrez.

Partaide batek helmugako marreatik gertu erori bada, inolako laguntzarik gabe altxatu beharko da bere burua sailkatu nahi badu, eta patinek helmugako marra zapaldu beharko dute lasterketa bukatutzat emateko.

Irristalariaren patinaren/botaren zati aurreratuenak helmugako marra zapaldu duen unearen menpe egongo helduerako ordena. Patinaren/botaren zati hori zorua ukitzen egon behar da, eta ez ditu 50 cm baino gehiago izan behar.

14. Artikulua

Proba batean, edozein dela ere, irristalari batzuk talde itxian heldu direla ontzat eman bada, eta helmugako epaileei zenbait irristalariaren sailkapena zehaztasunez adieraztea ezinezkoa bazaie, irristalariak zalantza moduan sailkatuko dituzte, *ex-aequo*, hain zuzen, eta ordenamendu alfabetikoaren arabera agertuko dira Aktan.

Ex-aequo sailkatu diren irristalariak helduerako ordena bera eta puntuazio berbera emango zaie. Postu horiei egokituko zitzaizkien puntuen batura irristalariaren kopuruagatik zatitzean lortzen dena izango da esleituko zaien puntuazioa. Hau da, 2. eta 3. postuak *ex aequo* izendatu badira, eta 20 lasterkaririk parte hartu badute guztira, bigarren postuan sailkatuko dira horiek denak, 18,5 punturekin.

15. Artikulua

Ibilaldiaren egoerak edo klima baldintza desegokiek lasterketa baten igarotzea edo jadanik hasi den lasterketa batekin jarraitzea oztopatuko balute, Epaile arbitroaren ardura izango da aldi batez bertan behera utzi, atzeratu edo baliogabetzeko erabakia hartzea.

Aipatutako lasterketei hasiera emango zaie, edo serie ezberdinetan antolatutako lasterketen kasuan, serieak eten diren unetik hasiko dira, betiere ibilaldiaren egoerak edo eguraldiak lasterketak behar bezala igaroko direla bermatzen badute.

Suspenditu den unetik hasita 24 ordu igaro baino lehen ospatzen den probari aldi batez bertan behera utzitako proba deritzogu. Proba atzeratua, aldiz, suspenditu den unetik berriz antolatu arte 24 ordu baino gehiago igaro direnean ematen da.



Aldi batez bertan behera utzi den lasterketa errepikatzean edo berriz hastean, lasterketa eten zen unean norgehiagoka ari ziren irristalariak parte hartuko dute soilik. Beraz, erretiratuak, ez aurkeztuak eta deskalifikatuak kanpo geldituko dira. Atzerapenaren kasuan, irristalari guztiek parte hartu ahalko dute, geroago izena eman dutenek barne.

16. Artikulua

Aurreratzeak eskuinetik egin daitezke soilik, baina ezkerretik aurreratu ahalko da irristalarien eta sokaren artean irristalaria ukitu gabe aurreratzeko tarte nahikoa bada. Irriestalariak talka egin badute, epaileek aipatutako tarte ote dagoen kontuan hartuko dute Araudia zeinek hautsi duen erabakitzeko. Izan ere, buruan zihoan irristalariak berriz ere gupilari lotu badio aurkariaren bidea oztopatuz, hau da, aukariaren bidea itxiz, bera izango da erruduna. Gainontzeko kasu guztietan, barnealdetik aurreratzen saiatzen dena arau hausletzat hartuko da, beraz.

Doblatuak izateko zorian dauden irristalariak bide librea utzi behar diete itzulia kendu behar dutenei, bidea itxi gabe, bultzatu gabe eta inoren alde edo aurka egin gabe.

Irristalariak ezin dute haien aurkariak nahita bultzatu, ezta azken horien bidea itxi edo moztu ere.

Irristalaria borondatez ateratzen bada lasterketaren ibilbidetik, lasterketa utzi duela iritziko da. Zirkuituaren edo pistaren marrak borondatez zeharkatzea erabaki duen irristalariari abisua emango zaio hori egin duen lehenbiziko aldian; bigarrenean, aldiz, deskalifikazio zigorra jasoko du.

Patinak matxuratu badira, irristalariak laguntza eremura jo behar du, lasterketaren zirkuitutik atera gabe eta probaren igarotzea ez oztopatzen saiatuz. Irriestalariak berak matxura konpondu behar du. Dena den, ordezko piezak eta behar diren tresnak eskainiko zaizkio.

Irristalariak erori badira, proban jarraitu ahal direnak altxatu behar dira, inolako laguntzarik izan gabe.

Irristalari guztien ardura izango da leialtasunez eta ahaleginak eginez lehiatzea. Kiroltasunean gabezia erakusten duten partaideak lasterketatik kanporatu ahalko dira.

Banakako lasterketa guztietan debekaturik dago:

- a) – Entrenatzea edo besteek irristalaria bultzatzen eragitea.
- b) – Aurkariak oztopatzea edo bultzatzea.
- c) – Taldekideen edo beste taldeen laguntzaz baliatzea edo haiei laguntza eskaintzea aurkariari kalteak eragiteko.

Artikulan xedatutakoa betetzen ez bada, araua hautsi duen irristalariak deskalifikazioa jaso dezake.

17. Artikulua

Irristalari orok antolakuntzak esleitu dion zenbakia eraman behar du derrigorrez. Zenbakiak behar bezala jarri behar dira, erraz ikus daitezzen. Irriestalariak ezkerreko izterrean zenbaki bat eraman behar dute, eta beste bat bizkarraren erdian, hala erabaki bada.

Erretiratu edo doblatu dituztelako lasterketatik at geratu diren parte hartzaileek berehala emango diote horren berri Epaile arbitroari, edo bestela, lasterketako edozein ofiziali.

Formaltasun horiek betetzen ez badira, araua hautsi duen irristalaria sailkapenetik kanpo gera daiteke.

18. Artikulua

Azken biraketa ematean buruan kokatu den irristalariak sokarekiko paraleloa den lerro zuzenean egon behar du, eta horrela jarraituko du helmugako marrara heldu arte. Beste irristalari guztiek arau hori bera errespetatuko dute.



Ibilbidean izaten den aldaketa orok, bidea itxi, zig zag egin, edo azken esprinta oztopatu dezakeen edozein jarduera, adibidez, sailkapenetik at gelditzea edo deskalifikazioa ekarriko du.

19. Artikulua

Lasterketa orok beharrezkoak diren instalazioez edo zerbitzuez horniturik egon behar du, eta probaren arabera ezberdinak izango dira. Hona hemen beharrezkoak direnak:

- a) – Mikrofono instalazioa edo megafoniako zerbitzua.
- b) - Gelditzen diren birak erakusten dituen aparatua.
- c) – Azken bira adierazteko ezkila edo bestelako seinale akustiko bat.
- d) - Lehen sorospenetarako postua oinarrizkoak diren gauzekin.
- e) – Partaideentzat erreserbatutako tokia.
- f) – Idazkaritzarako erreserbatutako tokia, mahaiekin eta aulkiekin.
- g) – Publikoa urrun izateko babes hesiak.
- h) – Segurtasun zerbitzua.
- i) – Anbulantzia bat.
- ii)

V. KAPITULUA Epaileak

Lehenbiziko atala –Lasterketetako ofizialak-

1. Artikulua

Edozein proba ofizial gauzatzeko behar diren lasterketetako ofizialen kopurua aldagarria da, hau da, lasterketaren garrantziaren eta ibilaldiaren arabera parte hartuko duten epaileen kopurua aldatuko da.

Lasterketen epaimahaia honakoek osatu behar dute, gutxienez:

- - Epaile arbitro bat
- - Zazpi Epaile laguntzaile. Epaile arbitroak esleituko dizkie egin beharreko zereginak:
 - Idazkaritza.
 - Irteerak
 - Helmugak
 - Ibilbidearen kontrola.
 - Birak zenbatzea.



- - Bi Kronometrizaile (kronometraje elektronikorik ez badago edo matxuratuta badago hori).

2. Artikulua

A. I. F.-ren Lasterketako Komisarioa edo Zuzendaria, edo haren izenean ordezkaturako pertsona, lasterketaz eta programa behar bezala bete dela ziurtatzeaz arduratu behar da.

Epaile eta zerbitzu guztiak haien funtzioak betetzeko aurkeztu direla egiaztatuko du, eta behar denean, ordezkariak izendatu edo neurriak hartuko ditu Lasterketa behar bezala igaro dadin. Nolanahi ere, probak hasitakoan, Lasterketaren erantzukizuna Epaile arbitroaren esku egongo da.

Probak hasi aurretik, honakoak dira lasterketako zuzendariak dituen betebeharrak:

- Irteera eta helmugako marrak behar bezala markatu direla ziurtatzea.
- Arabako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailak partaideei baimena eman diela egiaztatzea.

3. Artikulua

Epaile arbitroak diziplina kontrola eta kontrol teknikoa dauka lehiaketa batean emandako lasterketetan. Beraz, hauek dira bere betebeharrak:

- a) Partaide guztiak Araudian dagoena bete dutela bermatzea, eta lehiaketa batean ager daitezkeen arazo teknikoei erantzuna ematea, azken horiek Araudian aurreikusita ez dauden arren.
 - b) Epaimahaia osatzen duten kideen eginkizunak erabakitzea.
 - c) Epaileen lana zuzentzea, iritzi ezberdintasunak koordinatzea, kontrolatzea eta haien inguruko erabakiak hartzea.
 - d) Partaideetan, entrenatzaileetan, eta ordezkarietan diziplina ezartzeko ahalmena izatea, lehiaketa eremuan duten jarrerak Araudi honetan bildu diren diziplina neurriak erabiltzea eskatzen duenean.
 - e) Lehiaketako Aktak sinatzea.
 - f) Irteerako ordena eta proben hurrenkera erabakitzeko zozketa zuzentzea.
 - g) Epaile bakoitza dagokion tokian dagoela ziurtatzea, eta irteerako epaileari irteera emateko baimena eman aurretik kronometrizaileak prest daudela bermatzea.
 - h) Epaileen eskutik falta arinak jaso dituzten lasterkariei kargu hartzea.
 - i) Amonestazioak errespetatu ez dituzten irristalariak lehiaketatik ahalik eta lasterren kanporatzea.
 - j) Berehalako kanporaketa bat eman bada, kanporaketaren berri eman dela ziurtatzea eta zigorra jaso duen irristalariak pista edo zirkuitua berehala utzi duela bermatzea.
- Haren ustez, egokitu zaizkien eginkizunak behar bezala betetzen ez dituzten epaileak urrundu edo ordezkatzea.
- l) Ibilaldiaren neurri zehatzak jakitea eta ibilaldiaren egoera egokia dela ziurtatzea, irristalari guztien segurtasuna bermatzeko (estoldak, hesiak, kale estuak, makilak, zuhaitzak, eta lehiaketak behar bezala igarotzeak oztopatu dezakeen edozein gauza,



aipatutako tokietan lortzen den abiadura kontuan hartuz)- Ibilaldiko gune arriskutsu guztiak behar bezala babestu direla ziurtatzea.

m) Zirkuituen ibilbidea beti laua dela bermatzea, malda aldaketa kontrolatzea. Ibilaldia erabat itxita dagoela egiaztatzea. Helmuga eta irteerako marra argi eta garbi markaturik daudela ziurtatzea.

n) Sarien banaketa sailkapenak argitaratzen diren unetik 15 minutu pasatu baino lehen egingo dela ziurtatzea, edo, beharrezkoa balitz, jaso diren erreklamazioak konpondu direla bermatzea.

ñ) Haren iritzi zentsuraezinaren arabera, kirolariek asmo txarrak, kiroltasunik gabeko portaera eta gogo eza erakusten badute, lehiaketa bertan bera utzi dezake zenbait ohartarazpen egin ostean, eta nahi badu proba errepikatzeko agindua emango du, haren ustez egokiak diren zigorrak ezarriz.

o) Hark hartutako erabakien inguruan aurkeztu diren erreklamazioei irtenbidea bilatzea.

4. Artikulua

Epaimahaiaren idazkariaren ardura da lasterketa bakoitzeko Aktak biltzea. Horretarako, Epaille arbitroak eta Kronometratzaileetako nagusiak emandako datuak erabiliko ditu, eta azken bi horiek akta egiaztatu eta sinatu beharko dute dokumentua osorik idatzi ostean.

Gainera, lanean arituko da Epaille arbitroarekin batera, batez ere desadostasunak ekar ditzaketen gaietan (zozketak, puntuazioak, kanporaketak, serieak...).

5. Artikulua

Irteerako epailearen ardura da proba guztietan aktak bildu direla bermatzea, Araudian xedatutakoaren arabera.

6. Artikulua

Ondokoak dira Ibilaldiko epaileek bete beharreko funtzioak:

Probaren igarotzea kontrolatzea, batez ere bakoitzari dagokion tartean.

b) Epaille arbitroari proba gauzatu bitartean izandako irregulartasunen berri ahalik eta lasterren ematea.

c) Doblalu dituzten edo lasterketa utzi duten parte hartzaileen zenbakiak edo izenak idaztea, eta Epaille arbitroari horren berri ematea.

d) Irristalariei egin berri dituzten irregulartasunak ahoz jakinaraztea, eta Epaille arbitroa jakinaren gainean jartzea.

Pistan edo zirkuituan daukaten posizioaren arabera, ibilaldiko epaileak ondoko izenez ezagutzen dira:

- Zuzenkietako epaileak.
- Bihurguneko epaileak.
- Aldaketako epaileak (errelebo lasterketetan).

7. Artikulua

Helmugako epaileek Epaille arbitroari laguntza eskainiko diote probek irauten duten bitartean. Lasterketak ahalik eta gertuen ikusten saiatuko dira, gerta daitekeen edozein anomalia edo arau hausteren berri emateko.



Epaile hauen helburua irristalarien helduera ordena zehatz-mehatz adieraztea da.

Helmugako hiru (3) epaile egon behar dira, gutxienez. Egoerak eskatzen badu, gehiago egon daitezke, baina kopurua bakoitia izango da beti. Iritzi ezberdintasunak eman badira, gehiengoak erabakiko du. Nolanahi ere, *photo-phinish* existitzen bada, erabakia berea izango da.

8. Artikulua

Kronometraje elektronikorik edo *photo-phinish*-ik ez dagoen lehiaketa ofizialetan hiru (3) kronometratzaile egongo dira, gutxienez. Horien artean nagusi bat egongo da, zerbitzuak guztiz koordinatu daitezten jarraitu beharreko pausuak emango dituena. Kronometratzaile bakoitzak bere kabuz egingo du bere lana, betiere kronometratzaile nagusiaren argibideei jarraiki, eta irristalarietako denborak horiek idazteko erabiltzen duen txartel edo koadernoan bilduko ditu. Lasterketa bukatutakoan, txartela kronometratzaile nagusiari emango dio.

9. Artikulua

Kronometratzaile nagusiak, gainontzeko kronometratzaileen denbora txartelak jasotakoan, kronometro ezberdinetan erregistratutako denbora egiaztatu behar du. Horrela, denborak egiaztatu eta erregistratu ostean, partaideek lortutako emaitzak zehaztuko dituen zerrenda ofiziala eratuko du. Zerrenda sinatu eta idazkariari emango dio.

10. Artikulua

Lineako lasterketa guztietan lehenbiziko hiru (3) postuetan sailkatu direnen denborak hartuko dira, eta, ahal bada, gainontzeko irristalarien arteko denbora tarteak hartuko dira ere bai.

11. Artikulua

Denborak irteera eman orduko kalkulatzeko hasiko dira eta partaideek zorua ukitu behar duten euren patinen boten (punta) zatirik aurreratuenarekin helmugako marra zeharkatu arte hartuko dira.

12. Artikulua

Epaile bira kontatzailearen zereginak:

- a) Egindako biren kopurua idaztea
- b) Oraindik egiteke dauden bira kopurua adierazi, eskura daukan bira kontatzaileaz baliatuz.
- c) Lehiaketaren burua zehaztea.
- d) Buruan dauden irristalariak pasatu orduko bira bat kentzea.
- e) Buruan dauden irristalarietako azkeneko biran sartu direla abisatzeko ezkila hotsak edo bestelako seinale akustikoak egingo direla bermatzea.
- f) Seinale akustikoen bidez hurrengo biran puntuazio edo kanporaketak izango direla abisatzea, Epaile arbitroaren argibideei jarraiki egingo da.

Bira kontatzailea ongi ikusten den toki batean kokatu behar da, helmuga marraren ondotik hiru 3 metroko distantziara gutxi gorabehera, eta ahal bada, pista edo zirkuituaren barrualdean.



Bigarren atala - Apelazio Batzordea-

1. Artikulua

Ezingo dira Epaille arbitroaren aurka aurkeztu diren eta azken horrek konpondu dituen erreklamazioei buruzko helegiterik aurkeztu, ezin baitaitezke apelatu.

Erreklamazio guztiak idatziz aurkeztu behar dira.

2. Artikulua

Lehiaketak iraun bitartean diziplina neurriak aplikatu daitezke, zehazki euren buruak Epaimahaiaren xedapenak haustearen erantzuletzat dituzten lehiakideei edo kiroltasunaren oinarrien aurka egin dutenei zuzendutakoak:

- A) Amonestazioa.
- b) Helduerako ordenetik aldentzea (SAILKAPENETIK AT GELDITZEA)
- c) Lehiaketatik KANPORATZEA.
- d) Programako proba guztietatik KANPORATZEA.

3. Artikulua

AMONESTAZIOAK larriak ez diren falten kasuan aplikatu daitezke.

Oro har, amonestazioen ondoren KANPORAKETA dator (falta oso larrien kasuetan izan ezik). Amonestazioak pilatu egiten dira, eta larriak ez izan arren, zenbait amonestazio jaso dituen lehiaketatik kanpo geldituko da.

Proba kontrolatzeaz arduratzen den edozein epailek proposatu dezake irristalari baten AMONESTAZIOA, eta berehala Epaille arbitroari horren berri eman beharko dio.

4. Artikulua

Bereziki azken zatian lehiakide batek aurkari baten edo gehiagoren ibilbidean kalteak eragin ditunean, eta, beraz, arauak hautsi ditunean aplikatzen da probatik aldentzeko edo SAILKAPENETIK AT gelditzeko zigorra. Kasu horretan, Epaillearen arbitroak irristalaria SAILKAPENETIK AT uztea erabaki dezake, eta lortuko duen denbora irristalari kaltetuak lortu duena gehi milaren bat izango da.

5. Artikulua

SAILKAPENETIK AT geratzeko neurriak honako baldintzen arabera aplikatuko dira:

- a) HIRU AMONESTAZIO jaso badira.
- b) Falta larri bat egin bada.
- c) Falta oso larria bada, irristalaria programako lehiaketa guztietako SAILKAPENETATIK AT gera daiteke.

Epaille arbitroaren ardura da a) eta b) puntuetan bildutako neurriak ezartzea, eta zigorra denen aurrean aditzera emango da.

c) letran adierazitako neurriak A. I. F.-k, Arabako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailarekin batera ospatutako bilera batean aztertu beharko dira.

Epailleak hartutako erabakien inguruan egiten diren erreklamazioak lehiaketa amaitu den unetik 15 minutuko epean jakinarazi beharko zaizkio Epaille arbitroari, edo helduerako ordena irakurri ondorengo 15 minutuetan, eta helduerako sailkapenari erreferentzia egingo diote.



▶ Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
▶

www.araba.eus

Denboren inguruko erreklamazioen kasuan, kronometratzaileek hartutako denbora izango da ontzat emango dena.

6. Artikulua

Erakunde bakoitzak izendatutako ordezkari ofizialek leialtasunean eta kiroltasunaren zintzotasunean oinarritutako portaera izan behar dute.

Faltaren larritasunaren arabera, irristalariak amonestazioa jaso dezake, lehiaketa eremutik aldentzeko zigorra jaso dezake, edo , beharrezkoa denean, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskutik salaketa bat jaso dezake.

DIZIPLINA ARAUDIA

391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa izango da aplikagarria.